

6. KANALAK

Gure produktua aplikazio bat denez, interneten bidez helaraziko zaie bezeroei. Horregatik, iragarkiak sare sozialen bidez bidalko ditugu, adibidez; Instagram, Facebook, Twitter... Gaur egungo gizartean sareek leku handia dute, beraz, erabiltzaile ugari dituztela kontuan hartuta, bezeroengana heltzea ez gaude zailtasun bat izango delakoan.

Erregistratzeko modu bakarra hau da: inkesta bat betetzea da, zeinari urratsez urrats jarraitu behar zaion. Lehenengo eta behin izena eta lehenengo bi abizenak ipini behar dira, gero email kontu bat eta azkenik telefono zenbaki bat haiekin kontaktuan ipini ahal izateko. Horretaz gain, norbere kurrikuluma txertatzeko aukera ere dago. Horrela, ikus daitezke bai gauzatu diren ikasketak bai bizitza osoan zehar egindako lanak eta lortutako tituluak.

